



EBAZPENA

Lehiaren Euskal Agintaritzaren espedientea: 134-SAN-2015

Aurkibidea:

I. EGITATEZKO AURREKARIAK	1
II. ARABA GARAPEN AGENTZIA SAU	6
III. FROGATUTAKO EGITATEAK	7
IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK	14
1. Jokabidearen azterketa	14
A. 1. artikulua	14
B. 2. artikulua	16
2. Ebazpena emateko eskumena duen organoa	17
V. LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN EBAZPENA	18

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero andrea, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, bokala

Enara Venturini Álvarez andrea, bokala

Lourdes Muñoa Corrales andrea, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2018ko abenduaren 13ko bilkuran –goian adierazitakoek hartu dute parte–, honako ebazpena eman du Araba Garapen Agentziarekin lotutako 134-SAN-2015 espedientearen baitan:

I. EGITATEZKO AURREKARIAK

- 2015eko ekainaren 18an, Lehiaren Euskal Agintaritzak Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren salaketa bat jaso zuen, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen balizko hauste bat izan zitekeela komunikatuz. Salaketaren arabera, Araba Garapen Agentzia SA sozietate publikoak Iruña Okako Subillabide industrialdean pabiloi baten eraikuntza proiektua idazteko eta obren zuzendaritza esleitzeko egindako lizitazioan, lehia mugatu zen.
- Salaketak honako hau adierazten zuen:



Lizitazioan parte hartzeko jarritako baldintzek ezinezko bilakatzen dute *de facto* arkitektoek eskaintzak aurkezteko aukera izatea, berez, kontratuaren xede den motako obrak aurrera eramateko gaitasun profesionalak dituztenean.

Zehazki, 270.000 euro gehi BEZekoa den lizitazio prezioaren berdina edo % 75 baino gehiagokoa izango den **azken hiru urteetako kaudimena** exijitzen da jardueraren eremuan, eta, horrek, *de facto*, kanpo uzten ditu Arabako arkitekto elkargokideen % 100.

Gainera, deialdiaren izaera baztertzaila are gehiago indartzen du ordainsari horiek, eta, beraz, baita proiektuak ere, eskusiboki **izaera industrialekoak** izan behar direla ezartzeak.

Harrigarria da ere azkenean esleipena 179.000 eurotan egin izana lizitazio prezioa, adierazi berri dugun bezala, 270.000 eurokoa zenean.

Baina esleipenduna aldeztatik ia erabakita zegoela ondorioztatzen eramaten gaituen beste datu erabakigarri bat ere badago: **enpresaren proposamenaren eta proiektuaren beharren arteko koherentzia** 20 punturekin balioesten zen, eta, oinarritzko proiektua, hasiera batean publikoa ez zena, azkenean esleipendun bihurtu zen enpresak berak egin zuen, hau da, IDOM Ingeniería y Consultoría SA enpresak.

Hain zuzen ere, ordezkatzeko dudak Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak Kontratu Errekurtsoen Foru Organo Administratiboan errekurtsio berezia aurkeztu zuen arte, lizitazioan parte hartu nahi zuten gainerako interesdunek ez zuten ezagutzen oinarritzko proiektua, oinarritzko proiektua ezagutzea eta proiektu horrekiko koherentea izango zen proposamena aurkezteko 20 punturekin balioestezen zen arren.

3. 2015eko azaroaren 9an, jasotako salaketaren ondorioz, Ikerketa Zuzendaritzak isil-gordeko izapide bat abiatu zuen informazioa biltzeko asmoz.
4. 2015eko azaroaren 18an, Ikerketa Zuzendaritzak Araba Garapen Agentziari honako informazio hau eskatu zion:
 - Araba Garapen Agentziak Iruña Okako Subillabide industrialdean pabiloi baten eraikuntza proiektua idazteko eta obren zuzendaritza esleitzeko egindako lizitazioaren espediente osoaren kopia.
 - Kaudimen tekniko edo profesional gisa azken hiru urteetan kontratuaren xede den jarduera eremuan lizitazio prezioaren berdina edo % 75 baino gehiagokoa (270.000 euro) den gutxienez kontratu bat sinatu izana exijitzearen motibazioa.
 - Balorazio eta haztapen subjektiboko irizpideen motibazioa, izan ere, irizpideok proiektura egokitzen ziren kontuan hartuta balioetsi ziren eta jada aldeztatik eginda zegoen oinarritzko proiektu bat zegoen, zeinaren egilea izan zen gainera azkenean kontratuaren esleipenduna.
5. 2015eko abenduaren 17an, Araba Garapen Agentziak honako informazio hau bidali zuen:



Kaudimen tekniko edo gaitasun profesional gisa azken hiru urteetan kontratuaren xede den jarduera eremuan lizitazio prezioaren berdina edo % 75 baino gehiagokoa (270.000 euro) den gutxienez kontratu bat sinatu izana exijitzearen motibazioa.

TUBOS REUNIDOS PREMIUM THREADS konpainia berri bat da, TUBOS REUNIDOS enpresak eta MARUBENI-ITOCHU STEEL bere bazkide japoniarrak elkarrekin sortu dutena sektore petrokimikora bideratutako prestazio altuko tutu hariztatuko produktu berri bat garatzeko. Arabako ekonomiarentzat proiektu estrategikoa da aipatutakoa, bai konpainiak egin beharreko inbertsioagatik bai sortzea aurreikusten den lanpostu kopuruagatik ere.

Hori dela eta, konpainiari erraztasun eta pizgarri garrantzitsuak eskaini zitzaizkion inbertsio hori Araban egin zezan, bereziki egitasmoa ezartzeko beharrezko industria pabiloia eta bulegoak **eraikitzeari eta erosteko aukerarekin alokatzeari** dagokionez. Eraikuntza lanok, Araba Garapen Agentziaren jabetzako lursail batean egitea adostu zen.

Helburu horrekin Araba Garapen Agentziak eta TUBOS REUNIDOS PREMIUM THREADS konpainiak adostutako kontratuak, aztertzen ari garen lizitazioaren aurretik sinatutakoa, proiektua gauzatzeko epearekin lotutako baldintza zorrotzak ezartzen ditu, ez-betetzen ondoriozko zigor gogorrak aurreikusiz; era berean, bitarteko epeetan ere zorrotz bete beharreko baldintzak ezartzen ditu, erabiltzaileak industria pabiloian sartzeko aukera izateko instalazioak egin eta produkzio ekipoak muntatzeko. Egitasmoak erabiltzaileak etorkizunean ziurrenik planteatuko zituen behar berriei erantzun azkarra emateko gaitasuna eskatzen zuen, baita obrako kontratuekin lotutako gorabeherak ebaztekoa ere. Arrazoi horiengatik guztiengatik, beharrezkotzat jo zen esleipendunak antzeko tamaina eta konplexutasun mailako proiektuak garatzeko gaitasun teknikoa izatea ziurtatzea.

Azken urteotan industria pabiloien eraikuntzako sektorean jarduera txikia izan dela kontuan izanik, esleituaren antzeko ezaugarriak dituen gutxienez proiektu bat egin izanaren gutxieneko baldintza azken hiru urteetara luzatu zen, eta lizitazioaren zenbatekoa egitasmoaren % 75era jaisteko erabakia ere arrazoi beragatik hartu zen.

Antzeko ezaugarriak dituzten beste lizitazio batzuetan ere irizpide berdintsuak jarraitu ditu Araba Garapen Agentziak, adibidez Buesa Arena pabiloia eraikitzeako proiektua idazteko eta bertako obraren zuzendaritza esleitzeko 2010ean egindakoan; bertan, exijitutako kaudimen tekniko edo profesionala azken hiru urteetan egindako hiru kontratukoa zen, eta bakoitzaren zenbatekoa lizitazio prezioaren berdina edo handiagoa izan behar zen.

Balorazio eta haztapan subjektiboko irizpideen motibazioa, izan ere, irizpideok proiektura egokitzen diren kontuan hartuta balioesten dira eta jada alde aurretik eginda zegoen oinarrizko proiektu bat zegoen, zeinaren egilea izan den gainera azkenean kontratuaren esleipenduna.

Proiektuaren ezaugarri bereziak kontuan izanda, bai exekuzio epe estuengatik, bai aurreikusitako zigor altuengatik, bai pabiloiaren azken erabiltzailearekin izan beharreko harremanetan sor zitezkeen zailtasunengatik, bai obraren exekuzio proiektua idazterako garaian aurreikusita baina oraindik definituta ez zeuden behar berrietara egokitzeko gaitasunagatik, adibidez makinaren zimenduak jartzea eta zolata azpiko lurpeko hoditeriak egitea, beharrezkotzat jo zen honako puntu hauek ziurtatzea:

- Proposamenaren koherentzia zailtasunoi aurre egiteko honako arloetan: jabetzaren, erabiltzailearen eta ingeniartzaren arteko bilerak egiteko prozedurak; obraren kalitate



kontrolak bermatzeko prozedurak; obran parte hartzen duten aldeak kontrolatzeko prozedurak; eta plangintzan zehaztutako mugarrak betetzeko prozedurak.

- Lanotara adskribitutako giza baliabideak eta baliabide teknikoen egokitasuna.
- Proposatutako lan metodologia proiektuaren beharretara egokitzea, bai proposatutako plangintza aurreikusiz, bai plangintzaren jarraipena egitea eta exijitutako kalitatea betetzea bermatzeko duen kontrol sistema ere.

6. 2016ko apirilaren 5ean, Ikerketa Zuzendaritzak honako informazio hau eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Plangintzako Saileko Lurralde Plangintza eta Hirigintza Zuzendaritzari:

- Arabako lurralde historikoko eraiki gabeko industria-lur azalera (m²).
- Arabako lurralde historikoko industria-lur (eraikitakoa eta eraikigabea) azalera totala (m²).

7. 2016ko apirilaren 22an, Lurralde Plangintza eta Hirigintza Zuzendaritzak honako informazioa bidali zuen:

Hiri-lurzoru industrial finkatugabe + urbanizagarri + urbanizagarri sektorizatugabe azalera: 17.195.321,377005 m²

Hiri-lurzoru industrial + hiri-lurzoru industrial finkatugabe + urbanizagarri + urbanizagarri sektorizatugabe + lurzoru urbanizaezineko jarduera ekonomiko azalera: 46.677.416,889801 m²

8. 2016ko apirilaren 5ean, Ikerketa Zuzendaritzak Araba Garapen Agentziari honako informazio hau eskatu zion:

- Araba Garapen Agentziaren jabetzako hiri-lurzoru eraikigabe azalera.
- Araba Garapen Agentziaren jabetzako eraikitako hiri-lurzoru azalera.
- Araba Garapen Agentziaren jabetzako higiezinak, m² kopurua, kokapena eta katastroko erreferentzia zehaztuta.
- «Sektorearen berezko espekulazioaren eraginetik kanpo lurzoruaren prezioak denboran egonkor mantentzeko» ezarrita duen helburua betetzeko Araba Garapen Agentziak egiten duen lanaren azalpena.
- Araba Garapen Agentziak azken hiru urteetan erositako lursailen zerrenda, m² kopurua, kokapena, erosketa prezioa eta katastroko erreferentzia zehaztuta.
- Erosleak hautatzeko sistema.
- Saltzaileak hautatzeko sistema.
- Araba Garapen Agentziaren jabetzako ondasun higiezinen erabilera lagatzeko dauden moduak, m²-ko prezioa zehaztuta.
- Azken hiru urteetako ikuskatutako kontuen zehaztapena.



9. 2016ko apirilaren 25ean, Araba Garapen Agentziak honako informazio hau bidali zuen:

- **Araba Garapen Agentziaren jabetzako hiri-lurzoru eraikigabe azalera:** 762.808 m²

- **Araba Garapen Agentziaren jabetzako eraikitako hiri-lurzoru azalera:** 57.857 m²

- **«Sektorearen berezko espekulazioaren eraginetik kanpo lurzoruaren prezioak denboran egonkor mantentzeko» ezarrita duen helburua betetzeko Araba Garapen Agentziak egiten duen lanaren azalpena.**

Araba Garapen Agentzia industrialde berriak diseinatu eta sustatzeko gaituta dago, eta lurzoruak erosteko beharrezko ahalmenak ditu, beharrezkoa balitz baita desjabetze-espeditenteak indarrean jartzea eskatuz ere. Horrez gain, beharrezko urbanizazio lanak diseinatu eta gauzatzeko ahalmena ere badu.

Oro har esku hartze horiek urbanizazio berrietan egiten direnez eta merkatuaren gorabeherek gehiago eragiten dieten hiri-lurzoruak erosi beharrik ez denez izaten, Araba Garapen Agentziak industria-lurren eskaintza espekulaziotik kanpo eta prezio lehiakorretan mantentzeko helburua bete ohi du.

Araba Garapen Agentziak kalitatean eta prezioan lehiakorra den industria-lurren eskaintza izatea ziurtatzea du helburu, eta, ondorioz, salmenta prezioak doitutako marjinekin kalkulatu dira.

- Erosleak hautatzeko sistema.

Bezere potentzial bat Araba Garapen Agentziarekin harremanetan jartzen den unetik bertatik, oinarrizko informazioa eta garatu nahi duen jardueraren azalpen memoria txiki bat eskatzen zaizkio, besteak beste, sortuko dituen lanpostu kopurua, aurreikusitako inbertsioa edo elektrizitate hornikuntza beharrak zehaztu behar ditu interesdunak. Era berean, bai zerga betebeharrak bai gizarte-segurantzarekikoak egunean izatea egiaztatzen duten agiriak aurkezteko ere eskatzen zaio. Garrantzitsua da erosleak ongi definitzea garatu nahi duen jarduera, dagokion plan partzialetan zehaztutako industria-erabilerak betetzen dituela egiaztatzeko.

Printzipioz, Araba Garapen Agentzia jasotzen dituen eskaera bideragarri guztiei erantzuten saiatzen da. Horren erakusle, praktikan oso gutxi dira erantzun gabe geratzen diren eskaerak, eta, oro har, lurzoruari eman nahi zaion erabilera lurzoru horretarako egokia ez delako gertatu ohi da (kamioietarako aparkalekuak, gasolina-zerbitzuguneak...). Are gehiago, oso arraroa da interesdun ezberdinek eskatutako lurzoruak esleitu gabe geratzea.

- Saltzaileak hautatzeko sistema.

Publizitate eta lehia printzipioak betetzen direla bermatzeko asmoz, ondare-eragiketekin lotura ez duten erosketa guztiak kontratazioko barne jarraibideetan deskribatutako prozedurak jarraituz kudeatzen dira. Horrek urbanizazio eta eraikuntza proiektuen diseinu eta exekuzioarekin lotutako kontratazio guztiak hartzen ditu baitan.

Ondare-eragiketekin lotutako erosketak (batik bat lurzoru erosketak), egokitasun irizpideen eta industrialdeak garatzeko estrategien arabera erabakitzen dira.

- **Araba Garapen Agentziaren jabetzako ondasun higiezin erabilera lagatzeko dauden moduak, m²-ko prezioa zehaztuta.**



Araba Garapen Agentziak baliatu dituen ondasun higiezin lagapen moduak honakoak dira: Araba Garapen Agentziak sustatutako pabiloien alokairu estandarra; mota bereko pabiloien alokairua erosketa aukerarekin; mota bereko pabiloien salmenta epe luzeko finantzaketarekin; pabiloien neurriko eraikuntza eta salmenta (giltza eskura), epe luzeko finantzaketarekin; pabiloien neurriko eraikuntza eta alokairua (giltza eskura), erosteko aukerarekin; eta Arabako Foru Aldundiak eskatuta egindako pabiloi-lagapenak.

Aztertzen ari garen kasua pabiloi baten neurriko eraikuntza eta alokairuari dagokio (giltza eskura), erosteko aukerarekin.

- 10.** 2018ko ekainaren 18an, Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa zuzendariak zigor espedienteari hasiera ez emateko proposamena egin zuen, eta, 2018ko ekainaren 20an, Lehiaren Euskal Kontseiluari aurkeztu zion formalki.

II. ARABA GARAPEN AGENTZIA SAU

- 11.** ARABA GARAPEN AGENTZIA SAU, A01103118 identifikazio fiskaleko zenbakia duen Arabako Foru Aldundiaren merkataritza-sozietatea da, 1990ean sortu zena PROMOCIÓN DE INFRAESTRUCTURAS INDUSTRIALES ALAVESAS SA (PRINIA) izenarekin. 1996ko abenduaren 30ean, sozietatearen batzar nagusiak sozietatearen izena Araba Garapen Agentzia SA izenarengatik aldatzeko hartutako akordioa eskritura publiko bilakatu zen. Sozietatearen helbidea honakoa da: Jose Landazuri kalea 15, 01008 Vitoria-Gasteiz.

- 12.** Sozietatearen helburua, funtsean, honakoa da:

Arabako lurralde historikoaren industrializazioa sustatzea enpresa berrien sorkuntza zein dagoeneko existitzen direnen hobekuntza edo handitzea bultzatuz, industria sare egoki bat izatea lortu arte.

Arabako lurralde historikoan jarduera ekonomikoa sustatzea industria-lurren, bizitegi-lurzoruen eta zerbitzuak ezartzeko lurzoruen sustapen, kudeaketa eta eraikuntza bultzatuz, tartean turismo eta kirol arloko azpiegitura eta instalazioak, azken helburua Arabako Foru Aldundiak ezarritako jarraibideen arabera Arabako lurraldearen eta bertoko jarduera ekonomikoaren garapena eta hobekuntza laguntzea izanik.

Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen eta eskubide publikoko erakundeen eta beren sozietateen zerbitzura bideratutako eraikuntza eta instalazio lanak gauzatzea, lan eta instalaziook egiteko beharrezko aholkularitza eta kudeaketa zereginak garatuz.



III. FROGATUTAKO EGITATEAK

13. 2014ko abenduaren 23an, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (DO/S S247) argitaratu zen «Araba Garapen Agentzia SAK sustatutako pabiloia eraikitzeke proiektua idazteko eta obren zuzendaritza esleitzeko» abiatu beharreko prozedura ireki bidezko kontratazioaren iragarkia. Kontratuaren balio zenbatetsia 270.000 eurokoa izan zen, BEZa salbu.

Aipatu iragarkia 2015eko urtarrilaren 1eko 1. zenbakidun BOEn ere argitaratu zen¹.

14. «Araba Garapen Agentzia SAK sustatutako pabiloia eraikitzeke proiektua idazteko eta obren zuzendaritza esleitzeko Administrazio Baldintza Partikularren Pleguak», 2015eko urtarrilaren 7an berrikusitakoa, honakoa ezarri zuen:

1. KONTRATUAREN XEDEA ETA ARAU APLIKAGARRIAK

Honako kontratu honen xedea Araba Garapen Agentzia SAK sustatutako industria-pabiloia bat eraikitzeke proiektua idazteko lanak eta ondorengo obren zuzendaritza esleitzea da. Pabiloia Araba Garapen Agentzia SAK Iruña Okako (Araba) Subillabide industrialdean duen partzela batean eraikiko da. (CPV kodeak: 71240000 eta 71340000)

Kontratuan jasotako pabiloia egiteko beharrak inbertitzaile baten eskaerari erantzuten dio; Araba Garapen Agentziak hitzartuta ditu jada prezioa eta epea inbertitzailearekin. Proiektuaren definizioan eta lanak egiteko garaian parte aktibo izango da aipatu inbertitzailea; hori horrela, balizko aldaketa guztiek inbertitzailearen oniritzia beharko dute. Era berean, obren exekuzioaren azken fasean, inbertitzailearen zerbitzu teknikoak izango dira ekoizpen prozesuarekin lotutako instalazioak egiteko ardura izango dutenak, betiere beharrezko babes eta laguntzarekin. Beharrezko lizentziak lortzeko administrazioarekin izan beharreko harremanetan ere eskainiko da laguntza hori.

Azkenik, aipatu Araba Garapen Agentziak eta inbertitzaileak zenbait zigor hitzartu dituztela ez betetzeren bat izanez gero, bai programatutako beharretan bai pabiloia entregatzeko epean. Zigorrok enpresa esleipendunak hartu beharko ditu bere gain ez betetzeen arduraduna denean.

Zerbitzua plegu honetan eta baldintza teknikoen pleguan ezarritako baldintzak betez eskaini behar da.

Ondorio guztietarako, honako plegu honek, baldintza teknikoen pleguak eta gainerako dokumentu erantsiek kontratu-izaera izango dute, eta, hala diren aldetik, alderdien eskubideak eta betebeharrak arautuko dituzte, eta enpresa esleipendunak sinatu beharko ditu kontratua formalizatzeko unean, ados dagoela adierazteko. (...)

2. ESLEITZEKO MODUA

Hauek dira balorazio eta haztapan irizpideak:

¹ <http://www.boe.es/boe/dias/2015/01/01/pdfs/BOE-B-2015-79.pdf>



2.1. Xedeak

Eskaintza ekonomikoa: 60 puntu.

3. kapituluan ezarritako lizitazio motarekiko beherapen handieneko eskaintzak jasoko du 60 puntuko puntuazio maximoa.

Lizitazio motaren prezio berdina duten eskaintzek 0 puntu jasoko dituzte.

Gainerako eskaintzak proportzionalki balioetsiko dira, honako formula honen arabera jasoko dituztelarik puntuak:

$$Puntuación = \left(\frac{Presupuesto licitación - Presupuesto ofertado}{Presupuesto licitación - Presupuesto Oferta Mínima} \right)^{1/2} \times 60$$

2.2. Subjektiboak

Balorazio teknikoak: 40 puntu.

Eskaintzak euren kalitatearen arabera sailkatu eta ordenatuko dira, eta elkarrekin alderatuz puntuatuko dira. Hori horrela, atal bakoitzean kalifikazio onena lortzen duen eskaintzari puntuazio maximoa emango zaio, bigarren onenari puntuen hiru laurdenak, hirugarren sailkatuari puntuen erdiak eta gainerakoei puntuen laurdenak. Atalen batean baliabide nahikoa izatea egiaztatzen ez dutenei edo baliabideak zehazten ez dituztenei zero puntu emango zaizkie.

Esleipen prozesuan aurrera jarraitu ahal izateko, erakunde lizitatuak gutxienez gehieneko balorazioaren erdia lortu beharko dute balorazio teknikoan, hau da, 20 puntu.

Honako hauek dira balorazio teknikoak osatzen duten irizpideak:

Proposamenaren koherentzia: 20 puntu.

Araba Garapen Agentziaren eta inbertitzailearen arteko harremanaren nolakotasunak ikusita, bereziki balioetsiko da **enpresa parte-hartzailearen proposamenaren eta proiektuaren beharren arteko koherentzia**, hau da, aurkezten diren gorabeherei alde denen gustura behar bezala erantzuteko gaitasuna. Horrenbestez, bai aurreikusitako bitartekoak bai erabilitako metodologia helburuak betetzera bideratu behar dira.

Balio teknikoak: 10 puntu.

Atal honetan enpresa parte-hartzaileak aurkeztutako proposamena justifikatu beharko du, zehaztuz kontratuaren xede diren lanak egitera bideratuko duen langile kopurua eta zer antolakuntza jarraituko duen. Langileon egokitasuna balioetsiko da, eta, hala, arduraldi maila, titulazioa, esperientzia eta gaitasun profesionala zehaztuko beharko dira.

Lan-metodologia: 10 puntu.

Proiektuaren premietara egokitzea balioetsiko da. Era berean, proposatutako plangintza, aurreikusitako lanak eta exijitutako kalitatea bete direla justifikatu eta egiaztatzea ahalbidetuko duen lanen kontrol sistema bat izatea balioetsiko da. Dokumentu honen edukiak gutxieneko kontratu baten pareko balioa du.

(...) 5. PLEGUAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA



Baldintza Teknikoen Plegua, Baldintza Ekonomiko Administrazioen Plegua eta bestelako eranskinak Araba Garapen Agentziaren kontratatzaile-profilean izango dira eskuragarri proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Proposamenak aurkeztu aurretik, erakunde lizitatuak Araba Garapen Agentziarekin harremanetan jarri ahal izango dira honako lizitazio honetan ematen diren egoera zehatzak aztertze asmoz.

Interesa duen enpresaren batek denbora baliadunean **pleguen gainerako informazio osagarria** eskatuz gero, SPKLren 142. artikulua eta APKLEoren 78. artikulua diotena jarraituko da.

Eskaintzak jasotzeko azken data baino sei egun lehenago gutxienez eskatutako pleguen gainerako **informazio osagarria**, betiere, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino hamabi egun lehenagoko aurrerapenarekin egin bada eskaera pleguak eta informazio osagarria edo informazio gehigarria bidaltzeko eskaeren kasuan. (...)

(...) 7. DOKUMENTAZIOA

(...) 7.2. B gutun-azala: KONTRATATZEKO AHALMENA

(...) e) Jarraian zehaztutako kaudimen ekonomikoko, finantzarioko eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen dutenak:

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa: Kontratuaren xede den jardura eremuan azken hiru ekitaldietako bakoitzaren urteko negozio bolumenaren adierazpena. **Hiru ekitaldi horietako batean, urteko negozio bolumenaren zenbatekoa lizitazio motari dagokion berdina edo handiagoa izan beharko da.**

Kaudimen tekniko edo profesionala: Azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda. Honako alderdi hauek adierazi beharko dira: zenbatekoa, datak eta hartzaileak (publikoak edo pribatuak). Zerbitzu eta lanak ondo egin izana ziurtatzen duten egiaztagirak aurkeztu beharko dira. **Azken hiru urteetan kontratuaren xede den jardura eremuan lizitazio prezioaren berdina edo % 75 baino gehiagokoa den gutxienez kontratu bat sinatu izana** egiaztatu beharko da.

15. «Araba Garapen Agentzia SAK sustatutako pabiloia eraikitze proiektua idazteko eta obren zuzendaritza esleitzeko Baldintza Tekniko Partikularren Pleguak», honakoa ezarri zuen:

(...) 2. Proiektuaren hedadura

Plegu honen xede den proiektua bi jardura zehazetan banatzen da, proiektuaren idazketa eta obren zuzendaritza.

2.1. PROIEKTUA IDAZTEA

Idatzi beharreko proiektuak pabiloia eraikitze lanak kontratatze balioko du, eta, horrenbestez, lanok egin eta ostean legeztatze beharrezko dokumentu eta/edo ikerketa guztiak jasoko ditu. Hasierako informazioa honako hau da:

- Subillabide Industrialdeko Plan Partzialeko 5E partzela. Ikusi atxikitako planoak.



- Azalera: 31.381 m². Ikusi atxikitako planoak.
- Aurreikusitako eraikitako azalera:
 - Pabiloia: 14.143 m²
 - Bulegoak: 772 m²
- Proiektua idazteko gehieneko epea: 2 hilabete

2.2. Obren zuzendaritza

Idatzitako eraikuntza proiektuko pabiloia egiteko, Obren Ikuskapeneko eta Zuzendaritza Fakultatiboko zerbitzua kontratatzea. Aurreikusitako epea: 8 hilabete.

(...) 5. Beharren zerrenda

5.1. Hitzaurrea

Kontratuan jasotako pabiloia egiteko beharrak inbertitzaile baten eskaerari erantzuten dio; Araba Garapen Agentziak hitzartuta ditu jada prezioa eta epea inbertitzailearekin. Proiektuaren definizioan eta lanak egiteko garaian parte aktibo izango da aipatu inbertitzailea; hori horrela, balizko aldaketa guztiek inbertitzailearen oniritzia beharko dute.

Era berean, obren exekuzioaren azken fasean, inbertitzailearen zerbitzu teknikoak izango dira ekoizpen prozesuarekin lotutako instalazioak egiteko ardura izango dutenak, betiere beharrezko babes eta laguntzarekin. Beharrezko lizentziak lortzeko administrazioarekin izan beharreko harremanetan ere eskainiko da laguntza hori.

Araba Garapen Agentziak eraikuntza proiektua idazteko abiapuntu gisa balioko duen **oinarrizko proiektu** bat du; bertan, pabiloiaren eta bulegoen ezaugarriak zehazten dira. **Informazio hori enpresa esleipendunari emango zaio.**

5.2. Pabiloiaren ezaugarriak

Plegu honetako 2. kapituluari jasotakoaz gain, honako hauek dira pabiloiaren oinarrizko ezaugarriak:

- hiru nabe, ardatzen arteko 32 metroko argiarekin.
- Luzera: 156 m.
- Hormarte arteko distantzia: 12,5 m.
- Nabeen arteko azken hormarteko distantzia: 25 m.
- Barneko altuera librea zubi-garabira: 8 m.
- Hiru pabiloiek 10 Tm-ko zubi-garabientzako habe erraila izango dute.
- 30 cm-ko zolata pabiloi guztietan.
- Goi-tentsioko hargune orokorra.
- Instalazio sareak: aire konprimatua, argiteria, behe-tentsioa, ura eta lurreko sarea.

5.3. Bulegoen ezaugarriak

Plegu honetako 2. kapituluari jasotakoaz gain, honako hauek dira bulegoen oinarrizko ezaugarriak:

- Tipologia: beheko solairua + 1.



- Beheko solairuaren banaketa: aldagelak eta zerbitzuak.
- Lehen solairuaren banaketa: administrazioko bulegoak, bilera gelak, komunak eta zuzendaritza.
- Klimatizazioa, argiteria eta komunikazio sareak izango ditu.

5.4. Urbanizazioa

- Partzelaren itxitura perimetrala.
- Errodadura-bide perimetralak aurreikusitako pabiloira.
- Telebista zirkuitu itxia.

5.5. Obren zuzendaritza

Aurreikusitako obra behar bezala egiteko beharrezkoa izango da lanak egiten diren bitartean etengabe obran bertan izango den pertsona bat gutxienez izatea.

5.6. Inbertitzaileari laguntza

Proiektuaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta, bai Araba Garapen Agentziak sustatzaile bezala dituen interesak bai jarduera industrial garatuko duen inbertitzailearenak uztartu behar dira, beharrezkoa izango da kontratistarekin izan beharreko harremanetan enpresa esleipendunak inbertitzailearen eta honen eskakizunak betetzen dituztenen lana erraztea, funtsean ekoizpen lerroen instalatzaileak. Era berean, inbertitzaileari laguntza eman beharko dio bere jarduera abiatzeko lizentziak eta/edo baimenak lortzeko.

- 16.** «Subillabide (Araba) industrialdean konpainia berri batentzat tutu-mekanizazioko fabrika bat eraikitzeke oinarritzko proiektua» IDOM INGENIERÍA Y CONSULTORÍA SAK egin zuen. Dokumentu horren xedea honakoa zen:

1.2. DOKUMENTUAREN XEDEA

Dokumentu honen xedea industria pabiloiaren ezaugarri nagusiak oinarritzko proiektu batean definitzea da, horretarako Eraikingintzaren Kode Teknikoak 1. zatiaren 1. eranskinean definitutako aurkibidea jarraituz.

Dokumentu honekin fabrika eraikitzeke obra baimena lortu nahi da, betiere, jarduera lizentzia 1.4 apartatuan ezarri bezala izapidetu arte, baimendutako erabilera izan gabe.

Obrak hasi baino lehenago, derrigorrezkoa den exekuzio proiektua idatziko da, non honako **oinarritzko proiektu** honetan definitutako eraikuntzako oinarriak garatuko diren.

- 17.** 2015eko urtarrilaren 13an, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak aipatu lizitazioa zuzentzen zuten pleguen aurkako errekurtsio berezia aurkeztu zuen.



18. 2015eko urtarrilaren 20an, Arabako Foru Aldundiko Kontratu Errekurtsoen Foru Organo Administratiboak 1/2015² zenbakidun Ebazpena eman zuen, behin-behinean kontratazio prozedura bertan behera utziz.
19. 2015eko urtarrilaren 28an, Arabako Foru Aldundiko Kontratu Errekurtsoen Foru Organo Administratiboak 2/2015³ zenbakidun Ebazpena eman zuen, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak jarritako errekurtso berezia gaitzetsiz.
20. Aztertzen ari garen lizitaziora hamalau enpresa hauek aurkeztu ziren: (1) GLM UNIGEST SL; (2) ASTIV INGENIERÍA SLP eta INGENIERÍA TORNE SL enpresen arteko aldi baterako enpresa-elkartea; (3) BIDEIN INGENIERITZA SL; (4) ALFESTAL INGENIERÍA SL; (5) COOPERATIVA ARQUITECTURA SC; (6) EUROCONSULT NORTE SA, EUROCONSULT SA eta PROES CONSULTORES SA enpresen arteko aldi baterako enpresa-elkartea; (7) ESTUDIO K SOCIEDAD COOPERATIVA; (8) ASMATU SL; (9) TYP SA, TÉCNICAS Y PROYECTOS SA eta PABLO CARRETON GIL enpresen arteko aldi baterako enpresa-elkartea; (10) NIROSA INGENIERÍA SA; (11) SPIN INGENIEROS SL; (12) IDOM INGENIERÍA Y CONSULTORÍA SA; (13) INGENOR SL eta (14) LKS INGENIERÍA SOCIEDAD COOPERATIVA.
21. Beste bost enpresa (GLM UNIGEST SL, ASTIV INGENIERÍA SLP eta INGENIERÍA TORNE SL enpresen arteko aldi baterako enpresa-elkartea, BIDEIN INGENIERITZA SL, ALFESTAL INGENIERÍA SL eta COOPERATIVA ARQUITECTURA SC) lizitaziotik kanpo geratu ziren lizitazioaren jardura eremu berean ezarritako baldintzak betetzen dituen kontratu bat sinatu izana ez egiaztatzeagatik, hau da, industria eraikuntzaren eremuan proiektuak idatzi eta obren zuzendaritzan aritzeko kontratuaren zenbateko bereko edo % 75 baino gehiagoko kontratu bat aurretik ez izateagatik.

2

<http://www.araba.eus/cs/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-disposition&blobheadername2=pragma&blobheadervalue1=attachment%3B+filename%3D01-2015+Medidas+provisionales.pdf&blobheadervalue2=public&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1224090355621&ssbinary=true>

3

<http://www.araba.eus/cs/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-disposition&blobheadername2=pragma&blobheadervalue1=attachment%3B+filename%3D02-2015+Resoluci%C3%B3n.pdf&blobheadervalue2=public&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1224090355641&ssbinary=true>



Gainerako lizitatuzaileek (9) honako puntuazioak lortu zituzten balorazio teknikoan:

Lizitatuzailea	Proposamen aren koherentzia	Balio teknikoa	Lan- metodoa	BALORAZIO TEKNIKOA
IDOM INGENIERIA Y CONSULTORIA SA	20,00	10,00	10,00	40,00
INGENOR SL	15,00	5,00	5,00	25,00
LKS INGENIERÍA SOCIEDAD COOPERATIVA	10,00	7,50	7,50	25,00
EUROCONSULT NORTE SA, EUROCONSULT SA eta PROES CONSULTORES SA enpresen arteko aldi baterako enpresa-elkartea	5,00	2,50	2,50	10,00
ESTUDIO K SOCIEDAD COOPERATIVA	5,00	2,50	2,50	10,00
ASMATU SL	5,00	2,50	2,50	10,00
TYPSA, TÉCNICAS Y PROYECTOS SA eta PABLO CARRETON GIL enpresen arteko aldi baterako enpresa-elkartea	5,00	2,50	2,50	10,00
NIROSA INGENIERÍA SA	5,00	2,50	2,50	10,00
SPIN INGENIEROS SL	5,00	2,50	2,50	10,00

22. IDOM INGENIERÍA Y CONSULTORÍA SA, INGENOR SL eta LKS INGENIERÍA SOCIEDAD COOPERATIVA enpresek lortu zuten soilik gehieneko balorazio posiblearen % 50 (20 puntu).
23. Hiru enpresen **proposamen ekonomikoek** gainditu zuten balorazio teknikoan eskatutako gutxieneko puntuazioa:

Lizitatuzailea	Eskaintza ekonomikoa	Puntuazioa
INGENOR SL	170.000 €	60,00
IDOM INGENIERIA Y CONSULTORIA SA	179.000 €	57,24
LKS INGENIERÍA SOCIEDAD COOPERATIVA	188.999 €	54,00

24. Horrenbestez, **puntuazio globala** horrela geratu zen:



Lizitzailea	Puntuazioa
IDOM INGENIERIA Y CONSULTORIA SA	97,24
INGENOR SL	85,00
LKS INGENIERÍA SOCIEDAD COOPERATIVA	79,00

25. Horiek horrela, 2015eko otsailaren 12an, kontratua IDOM INGENIERIA Y CONSULTORIA SA enpresari esleitu zitzaion.

IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Jokabidearen azterketa

A. 1. artikulua

26. Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1. artikulua debekatu egiten du taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jardura oro, baldin eta horien helburua merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea bada.

Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikulua aplikazioak, horrenbestez, eragile ekonomiko ezberdinen arteko borondate-kontzertu bat izatea eskatzen du.

27. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak aurkeztutako salaketa ikusita ondorioztatzen denez, Elkargoaren iritziz, Araba Garapen Agentziak oinarritzko proiektua egin zuen –eta azkenean eraikuntza proiektua idazteko eta obren zuzendaritza eramateko kontratua esleitu zitzaion– enpresa laguntzeko xedez jokatu zuen. Hori dela eta, informazio biltzeko asmoz egindako isil-gordeko izapidean, Araba Garapen Agentziaren eta IDOM INGENIERÍA Y CONSULTORÍA SA enpresaren arteko borondate-kontzertu bat izan dela frogatzen duten aztarnak dauden ikertu da.

Besteak beste, salatzaileak lehiarentzat murriztailetzat jotzen dituen pleguetako klausulak aztertu dira horrela den egiaztatu eta klausulok pleguetan sartu izana IDOM enpresarekin hitzartuta egin ote zen aztertzeko.

28. Kontratuaren xede den jardura eremuan azken hiru ekitaldietako bakoitzaren urteko negozio bolumenaren adierazpena aurkezteko baldintzari dagokionez –



gutxienez hiru ekitaldietako batean urteko negoziazio bolumenaren zenbatekoa lizitazio motari dagokion berdina edo handiagoa izan behar zen—, egokia da adieraztea ez dela hauteman baldintza hori ezarri izana IDOM enpresaren aldeko sarrerako oztopo bat izan denik. Izan ere, balizko edozein lizitatzailerik negoziario bolumen hori hiru urteetako batean soilik justifikatu behar zuen, Araba Garapen Agentziak argudiatu bezala, aurreko beste lizitazio batzuetan negoziario bolumen hori hiru urteetan betetzea eskatzen zenean.

- 29.** Kontratuaren xede den jarduera eremuan lizitazio prezioaren berdina edo % 75 baino gehiagokoa den gutxienez kontratu bat sinatu izana exijitzeko baldintzari dagokionez, egokia da adieraztea, Arabako Foru Aldundiko Kontratu Errekurtsoen Foru Organo Administratiboak egin bezala, kontratazio organoak egindako txostenaren arabera baldintza hori zabaltasunez formulatuta dagoela eta, ondorioz, baldintza betetzeko nahikoa zela kontratuaren xede den jardueraren eremuan kontratu bat sinatu izana, jada exekutatua edo exekuzio fasean dena, hautazko moduan —proiektu bat idaztea edo obra bat zuzentzea—. Horrez gain, gehitu beharra dago gutxienez industria eraikuntzarekin lotutako kontratu bat sinatu izana exijitzea kaudimen tekniko edo profesionaleko gutxienerako baldintza dela, zeinaren helburu nagusia lizitatzailerik kontratua berme osoz bete ahal izatea den.

Horrenbestez, aipatu baldintza egokia eta kontratuaren xedearekin lotutakoa dela ondorioztatu beharra dago, industria eraikuntzaren eremuan kontratu bat sinatu izana beharrezkotzat jotzea azalpen nahikoa zabala baita berez, ez duena esperientzia izatea lizitazioaren xede den kontratuaren antzeko bat sinatu izanari mugatzen eskusiboki, hau da, industria pabiloi bat eraiki izanari.

- 30.** Azkenik, IDOM enpresak oinarritzko proiektua egin izanagatik eta aurkeztutako proposamenak oinarritzko proiektu horrekin koherenteak izatea balioetsi izanagatik ustez izandako lehia abantailari dagokionez, egokia da adieraztea, Arabako Foru Aldundiko Kontratu Errekurtsoen Foru Organo Administratiboak egin bezala, egia den arren Baldintza Tekniko Partikularren Pleguaren 5.1 klausulak proiektu hori enpresa esleipendunaren esku utziko zela ezartzen zuela, Administrazio Klausula Partikularren Pleguko 5. klausulak ezartzen zuela lizitazioan parte hartzeko interesa zuten pertsona eta erakundeek aukera zutela pleguen gaineko dokumentazioa eta informazio osagarria eskatzeko. Ildo horretan, zenbait interesdunek oinarritzko proiektua eskatu zuten, eta kontratatzailearen profileen ere sartu zen, interesdun guztiei indibidualki jakinarazi zitzaizen bezala.

Administrazio Klausula Partikularren Pleguko 1. klausularen arabera, kontratuzko agiriak ziren ondorio guztietarako aipatu Plegua, Baldintza Tekniko Partikularren



Plegua eta bion eranskinak; horrenbestez, aldeen eskubideak eta betebeharrak arautuko zituzten eta esleipendunak kontratua formalizatzeko ekitaldian sinatuko zituen adostasun froga gisa. Horrenbestez, ez dago oinarriko proiektua kontratuzko dokumentu gisa hartzerik, baizik eta Araba Garapen Agentziaren eta industria pabiloiaren etorkizuneko errentariaren arteko konpromisoak definitu eta hitzartzeko agiri gisa; hau da, agiri horretako zehaztapenak ez ziren ezinbestekoak lizitatzailleek euren proposamen ekonomiko eta teknikoak egiteko.

31. Salatzaileak lizitazioan lehiarik izan ez zela alegatu arren, bertan hamalau lizitatzailleek hartu zuten parte eta horietako bederatzik egiaztatu zuten kontratuaren xede den jarduera eremuan lizitazio prezioaren berdina edo % 75 baino gehiagokoa den gutxienez kontratu bat sinatu izana. Horietako hiruk gehieneko balorazio maximoaren % 50eko muga (20 puntu) gainditu zuten, eta, hortaz, euren proposamen ekonomikoa balioetsi zen; hala, azkenean, IDOM enpresak lortu zuen kontratuaren esleipena, baina Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritza honek ez du ikusten esleitzaillearen eta esleipendunaren arteko kolusio-akordiorik.
32. Horregatik, egokia da Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikulua aurkako arau hausteen zantzurik ez dela deklaratzeko.

B. 2. artikulua

33. Lehiaren Defentsarako Legearen 2. artikulua debekatu egiten du merkatu nazional osoan edo zati batean nagusitasun posizioan dagoen enpresa ororen gehiegizko ustiapena.
34. Lehiaren Defentsarako Legearen 2. artikulua aplikazioak eskatzen du, lehenik eta behin, aztertutako jokabidean inplikaturako eragile ekonomikoak, kasu honetan Araba Garapen Agentzia, alde aurretik definitutako merkaturan gehiegizko nagusitasun posizioa izatea.
35. «Batzordearen Komunikazioa – Nagusitasun posizioan diren enpresen neurritz kanpoko jokabide baztertaileen gaineko Europar Batasunaren Tratatuaren 82. artikulua aplikatzerakoan kontuan izan beharreko kontrol lehentasunei buruzko jarraibideak» (DOUE 2009/C 45/02)⁴ dokumentuko 10. paragrafoan, nagusitasun posizioa horrela definitzen da: enpresa bati erreferentziazko merkatu batean benetako lehiarik ez izatea ahalbidetzen dion botere ekonomikoko egoera,

⁴ [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52009XC0224\(01\)&from=ES](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52009XC0224(01)&from=ES)



enpresak lehiakideekiko, bezeroekiko, eta, azkenik, kontsumitzaileekiko independentzia maila hautemangarriarekin jokatzeko aukera izanik.

36. Batzordeak, aipatu Komunikazioko 14. paragrafoan zehazten duenez, enpresen merkatu kuota baxuak izatea, oro har, nagusitasunez jokatzeko duen botere bat ez dagoela adierazten duen seinale ona da. Batzordearen esperientziaren arabera, enpresa batek erreferentziako merkatuan % 40 baino gutxiagoko merkatu kuota baldin badu, ez da gertagarria nagusitasunez jokatzeko.
37. Merkatu adierazgarri gisa Arabako lurralde historikoko industria-lurren kudeaketa hartzen badugu, eta Eusko Jaurlaritzak eta Araba Garapen Agentziak bidalitako eraikitako industria-lurren eta industria-lur eraikigabeen zifrak kontuan hartzen baditugu, honakoa ikus dezakegu: Araba Garapen Agentziak lurraldeko industria-lur **eraikigabeen** kudeaketan % 4,44ko kuota du, eta, Arabako industria-lur osotasunean hartuta, hau da lur **eraikigabeak eta eraikitako** lurraldeko kontuan hartuta, % 1,76ko kuota.

Horrenbestez, salatutako Arabako Garapen Agentzia nagusitasunezko posizio batean ez dagoela kontuan izanda, ezin zaizkio aplikatu 2. artikuluko xedapenak.

2. Ebazpena emateko eskumena duen organoa

38. Lehiaren Defentsarako Legearen 49.3 artikulua honako hau xedatzen du:
- Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, ustez lege honen 1., 2., eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastea erabaki eta ordura arteko jarduerak artxibatu ahal izango ditu, Legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.
39. Azaldutakoa betez, Ikerketa Zuzendaritzak ondorioztatu du ez duela nahikoa zantzurik aurkitu Lehiaren Defentsarako Legea urratu denik esateko aztertzen ari garen kasuan.
40. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legeko 10. artikulua honako hau xedatzen du:
10. artikulua.- Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak.
- Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak honako hauek dira: (...)

⁵ 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzarena (2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.).



e) Administrazioak bere kabuz hasitako jarduerak edo salaketak artxibatzea ebaztea, hala egin behar denean, zehapen-espeditante bihurtu baino lehen, (...)

41. Lehiaren Defentsarako Legearen 49.3. artikulua honako hau xedatzen du:

3. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, ustez lege honen 1., 2., eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastea erabaki eta ordura arteko jarduerak artxibatu ahal izango ditu, Legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.

42. Otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuak onetsitako Lehia Defendatzeko Erregelamenduaren (LDE) 25. artikulua ezartzen duenez, salaketa jarri izanak ez du esan nahi Ikerketa Zuzendaritzak ezinbestean zehapen-prozedura abiatu behar duenik. Prozedura ez irekitzeko erabakia salatzaileari jakinarazi beharko zaio, azalduz prozedura irekitzea zergatik ez den bidezkoa.

43. Aipatu otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuak, 27. artikulua, honakoa ezartzen du:

Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseiluak (kasu honetan Lehiaren Euskal Kontseiluak) prozedura ez hasi eta uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 44. eta 49.3 artikuluetan ezarritako baldintzetan jarduerak artxibatze aldera, Ikerketa Zuzendaritzak jasotako salaketaren, aurretiaz egindako jardueren, hala dagokionean, eta artxibatzeko proposamenaren berri emango dio.

44. Aurrekoarekin bat eginez, eta, txostenean oinarrituta, Ikerketa Zuzendaritzak zehapen-espeditanterik ez hasteko eta salaketa artxibatzeko proposamena egin zuen 2018ko ekainaren 18an. Kontseilu honek Ikerketa Zuzendaritzaren aipatutako proposamena onartu du, ez baitago arau-hausteen inolako zantzurik. Ondorioz, ezin da zehapen-espeditanterik hasi aipatutako 27. artikuluko bigarren atalarekin bat eginez.

V. LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN EBAZPENA

BAKARRA.- Zehapen-prozedurarik ez hastea eta erreferentziazko salaketaren markoan egindako eta izapidetutako jarduketak amaitutzat jotzea; izan ere, ez da egiaztatu nahikoa zantzurik dagoenik ondorioztatzeko Lehiaren Defentsarako uztailaren 3ko 15/2007 Legea hautsi denik.



Jakinaraz bekie ebazpen hau Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritzari eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko Lehiaren Zuzendaritzari eta interesdun guztiei, eta adieraz bekie ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipin dezaketela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, jakinarazpena egiten den egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.